



Ref.:

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

5/ 2019 INSTRUKZIOA (TLB-4/ E-4)

GAIA: Ibilgailu bereziei eta garraio bereziko araudiaren menpeko ibilgailuei zirkulazio baimen osagarria emateko irizpideei buruzko 5/2018 Instrukzioaren I. eranskina aldatzea.

ZBOen tramitazioarekin lotuta, 5/2018 Instrukzioaren I. eranskineko a) atala aldatu behar da, "Interesduna: ZBOren titularra" izeneko.

Atal horren barruan, ibilgailu berezien errentariak zirkulazio baimen osagarrien titularrak izateko aukera jaso behar da.

Kontuan hartu behar da gerta daitekeela ibilgailu berezien zirkulazio baimenaren titularrak modu profesionalean gidaririk gabeko ibilgailuak errentan ematen dituzten enpresak izatea.

Ondorioz, atal horrek, aukera hori jasotzeko, eduki hau izango du:

I. ERANSKINA: ZBO EMATEKO BETEKIZUNAK

a. Interesduna: ZBOren titularra

Zirkulazio baimen osagarria pertsona fisiko edo juridiko (enpresa) horrentzat eskatzen da eta baimenaren arduraduna izango da.

Pertsona edo enpresa hori eta beste hau pertsona bera izan behar dira:

- ❖ Garraio-enpresako txartelaren titularra, **GABAI** baterako ZBOren eskabidean sartzen diren ibilgailu motordun guztiak bere izenarekin lotuta dituena; edo garraio pribatuak badira, zirkulazio-baimenaren titularra.
 - Atzerritarren kasuan, Erkidegoko garraio-lizentziaren titularra edo Europar Batasuneko kideak ez diren herrialdeetako ibilgailuetarako horren baliokidea den dokumentuaren titularra, dagokionaren arabera.
- ❖ **Obra eta zerbitzuetako IB** baterako eskabidean agertzen den ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren titularra edo, ibilgailu motordunaren jabea modu profesionalean gidaririk gabeko ibilgailuak errentan ematen dituen enpresa bat bada, errentamendu-kontratuan errentari gisa agertzen den pertsona.
 - Azken kasu horretan, eskabidearekin batera errentamendu-kontratua ere aurkeztu behar da, baldin eta ibilgailuen Erregistroan inskribatuta ez badago edo ibilgailuak atzerriko matrikula badauka.



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1VZA-WT10 bilagailua erabili, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador

J0D0Z-T1VZA-WT10 en la sede electrónica <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>
Donostia - San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 87 44 - Fax 945 01 87 50

Instrukzio honetan jasotakoa aplikatu behar da instrukzioa sinatu eta hurrengo egunetik aurrera hasten diren espediente guztietan.

Honekin batera doa 5/2018 Instrukzioaren bertsio kentsolidatua jasotzen duen eranskina.

Vitoria-Gasteiz,

SONIA DIAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA
TRAFIKOKO ZUZENDARIA

INSTRUKZIO ZK. 5/ 2018¹ (LB 4/ E 5)

GAI A: IBILGAILU BEREZIEI ETA GARRAIO BEREZIKO ARAUDIAREN MENPEKO IBILGAILUEI ZIRKULAZIO BAIMEN OSAGARRIA EMATEKO IRIZPIDEAK

Araudian ezarritako masa eta neurriak gainditzen dituzten Ibilgailu Bereziek (aurrerantzean IB) eta Garraio Bereziko Araubidearen menpeko Ibilgailuek (aurrerantzean GABAI), errepideetatik zirkulatzeko, baimen berezi bat edo zirkulazio baimen osagarri (aurrerantzean ZBO) bat behar dute. Baimen hori gehigarri bat izango da ibilgailuak zirkulazioan jartzerakoan emandako zirkulazio-baimen arruntaren gainean.

Instrukzio honen helburua da GABAI eta obra edo zerbitzuetako IBen ZBOk emateko irizpideak ezartzea.

Horrez gain, baimen horiek Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa elektronikoki izapidetzeko jarraibideak ere agertzen dira. Espedienteak elektronikoki izapidetzeko aukera emanez, Administrazioak espediente elektronikoa lege ezarritako berme guztiekin izapidetzeko daukan betebeharra betetzen du eta, aldi berean, prozeduraren interesdunek Administrazioarekin elektronikoki erlazionatzeko daukaten eskubidea eta betebeharra ere betetzen du, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezartzen duenaren arabera.

Hala ere, garraioa araz ezarritako mugak betetzen dituen beste ibilgailu batekin egin ahal bada, ez da ZBOrik emango.

Nekazaritzako IB eta haien taldeetarako ZBO emateko, maiatzaren 10eko 7/2016 Instrukzioan ezarritako irizpideei jarraituko zaie.

¹ 5/2019 Instrukzioaren bertsio kontsolidatua

AURKI BIDEA

- I. ARAUDIA**
- II. ZBO-EN KATEGORIAK**
- III. ZBO EMATEKO BETEKIZUNAK**
- IV. ESKABI DEA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**
- V. IZAPI DETU BEHAR DUEN ORGANOA**
- VI. IZAPI DETZEA**
- VII. BAIMENAREN INDARRALDIA**
- VIII. ZBO-REKIN ZIRKULATZEA ETA BALDINTZAK**
- IX. DATUEN BABESA**
- X. INDARREAN SARTZEA**

ERANSKINAK

- *I. eranskina: ZBO emateko betekizunak.*
- *II. eranskina: Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.*
- *III. eranskina: Eskabideak izapidetzea.*
- *IV. eranskina: ZBO aldatzea eta berritzea (eskabide laburtua).*
- *V. eranskina: ZBOrekin zirkulatzea eta baldintzak.*
- *VI. eranskina: Laguntzak: motak, parametroak eta abisuak.*

I. ARAUDIA

ZBOen emakida lege hauetan arautzen da: abenduaren 23ko 2822/1998 EDk, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean IEO) onartzen duenak, 14. artikuluan eta I eta IX eranskinetan; eta azaroaren 21eko 1428/2003 EDk, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean ZEO) onartzen duenak, 13 artikuluan eta III. eranskinean.

14. artikulua horren arabera, trafiko-arloan eskumena daukan organoak ZBO eman dezake zirkulazio-kopuru mugatu edo epe zehatz baterako, eta, betiere, behin errepidearen titularraren txosten loteslea jaso ondoren, baldin eta ibilgailuek arauz ezarritako gehieneko masak edo neurriak gainditzen badituzte:

- ibilgailuaren ezaugarri teknikoengatik edo
- garraiatzen duen karga zatiezinarengatik, ibilgailuok legez dagokien garraio-baimenaren babespean daudela egiaztatu ondoren.

Azkenik ZBOk IBen edo GABAren zirkulazio-baldintzak ezarriko ditu, eta aplikagarri diren ZEOren III. eranskinean zehaztutako arau orokorrei egokitu behar zaie. Arauon gainera daude, dena den, zirkulazio baimen osagarrian ezarritako zirkulazio-baldintzak.

II. ZBO-EN KATEGORIAK

ZBO baten babespean zirkulatzen duten IB eta GABAletarako zirkulazio-arauak eta –baldintzak, ZEOren 13. artikuluan ere izen horrekin agertzen direnak, lege-testu horren III. eranskinean agertzen dira eta arauak eta baldintzak desberdinak izan daitezken emandako zirkulazio baimen motaren arabera: generikoa, berezia edo salbuespenezkoa.

Horrekin lotuta, eta arauz ezarritakoa gainditzen duten neurriak eta masak kontuan hartuta, obra eta zerbitzuetako IB eta GABAletarako hiru ZBO motetarako parametro hauek ezarri dira:

- *Obra eta zerbitzuetako IB eta GABAI*

I EO neurria (IX. eranskina)	Generikoak	Bereziak	Salbuespenezkoak
LUZERA (L)	≤ 20,55 m	≤ 40 m	> 40 m
ZABALERA (a)	≤ 3,00 m	≤ 5 m	> 5 m
ALTUERA (h)	≤ 4,5 m	≤ 4,7	> 4,7
MASA (M)	≤ 45 T	≤ 110 T	> 110 Tn
MARDATZ	≤ IX. eranskina (ibilgailu eta ardatz motaren arabera)	≤ IAT	≤ IAT

--	--	--	--

III. ZBO EMATEKO BETEKI ZUNAK

ZBOen eskaera izapidetzeko, gutxieneko baldintza batzuk bete behar dira, hauen inguruan:

- a) Nor izan daitekeen eskatzailea eta beraz, baimenaren titularra.
- b) Zein ibilgailuk eske dezaketen baimena.
- c) Baimentzeko zain dauden taldeek, hurrenkeraren arabera ordenatuta, zein ezaugarri izan behar dituzten.
- d) Baimenaren babespean dagoen garraioak daraman kargaren ezaugarriak zein izan behar diren.
- e) Eskatutako ibilbideei zein ezaugarri ezarri zaizkien.

I. **eranskinean** betekizun horietako bakoitzaren zehaztasunak azaltzen dira.

IV. ESKABI DEA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

a. Eskabidea

Aurkezteko erabiltzen den kanala edozein dela ere (elektronikoa edo presentziala), eskabide-inprimakia Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa dago, eta honen bidez sartu ahal da: www.trafikoa.eus edo www.trafikoa.eus.

b. Dokumentazioa

Eskabidea behar bezala beteta eta eskatzailearen identitateari edo ordezkariari buruzko dokumentazioa ere aurkeztu behar da, hala badagokio, eta eskatzailearen eta eskabidean sartuko diren ibilgailuen arteko loturari buruzkoak ere bai, baldin eta dokumentu horiek aurretik aurkeztu ez badira.

Horrez gain, kasu zehatz batzuetan, teknikari eskudunek egindako bideragarritasunari buruzko azterlanak ere behar dira. ZBOren eskabidea GABAI baterako bada, horrekin batera eskatutako taldeak abian duen hurrenkeraren krokis bat ere aurkeztu behar da.

Aurkeztu beharreko dokumentazio zehatza instrukzio honen **II. eranskinean** jasota dago.

V. IZAPI DETU BEHAR DUEN ORGANOA

Trafikoko zein Lurralde Bulegok izapidetu behar duen erabakitzeko, ZBOren eskabidean ibilbidea zehazteko beharra dagoen ala ez kontuan hartu behar da. Horiek horrela:

- Ibilbidea zehazteko beharrik ez badago (ibilbiderik gabeko ZBO), banaketaren arabera dagokion Lurralde Bulegoak izapidetu behar du.
- Ibilbide zehatza azaldu behar bada (ibilbidedun ZBO), eskatzen den ibilbidea osorik igarotzen den edo hasten den lurraldeko bulegoak izapidetu behar du.

ZBO aldatzeko edo berritzeko (eskabide laburtua) eskabideak jatorrizko baimena eman zuen Lurralde Bulegoak izapidetuko ditu.

VI. IZAPIDETZEA

Eskabideak ZBO berri bat eskatzeko, iraungitzean dagoen ZBO bat berritzeko (eskabide laburtua) edo indarrean dagoen ZBO bat iraungi arteko eperako aldatzeko izan daitezke eta, aurkezteko erabiltzen den kanala edozein dela ere, eskumena daukan Lurralde Bulegoak izapidetu behar ditu. Bulego horrek egin beharreko izapideak egin ostean, dagokion ebazpena emango du: baimentzeko, ukatzeko edo atzera egin duela edo uko egin diola deklaratzeko.

Emandako ebazpena jakinarazten denean, prozedura amaituko da. Interesdunek Administrazioarekin elektronikoki erlazionatzeko betebeharra baldin badute edo haien borondatez komunikatzeko modu hori aukeratu badute, jakinarazpena egoitza elektronikoa bidez egingo da. Bestela, eskatzailearen eskura jarriko da, jaso duela egiaztatzeko aukera ematen duen moduren batean (39/2015 Legearen 41.art. eta horren ondokoak).

III eta IV. eranskinetan, eskabide berriak eta aldatzeko edo berritzeko eskaerak (eskabide laburtua) nola izapidetu zehatz-mehatz azaltzen da.

VII. BAIMENAREN INDARRALDIA

ZBOren indarraldia honen arabera izaten da: eskabidean ibilbide zehatz bat jarri behar den ala ez.

Indarraldi-epeak ofizioz aplikatuko dira, salbu eta bideko titularrek kasu zehatz baterako egindako "ad-hoc" txostenen proposamen arrazoituaren arabera indarraldi-epe laburrago bat ezartzea erabakitzen bada edo eskatzaileak epe laburrago bat eskatzen badu. Horrelakoetan, indarraldia 2,4 edo 6 hilabetekoa izango da.

Obra eta zerbitzuetarako IB eta GABAiei emango zaizkien ZBOei indarraldi-epe hauek aplikatuko zaizkie:

- Ibilbide zehatzik ez badago, 2 urte.
- Ibilbide definitu edo zehatza badago, urte 1.

VIII. ZBO-REKIN ZIRKULATZEA ETA BALDINTZAK

Espedientea izapidetzen amaitu ostean, onartzeko ebazpena eman behar bazaio, bideko titularrek txostenetan behar bezala arrazoitutako zirkulazio-murrizketak eta pasabide-erreserbak kontuan hartuta ere, ZBOk ezarriko ditu GABAI edo IBri dagozkion eta aplikagarri zaizkion zirkulazio-baldintzak; izan ere, baimenean ezartzen diren zirkulazio baldintzak ZEOren arauari gailentzen zaizkie.

Zirkulazio-, abisu- eta laguntza-arauez gain, baimenaren balioa baldintzatzen duten ohar orokorrak ere jasoko dira.

V eta VI. eranskinetan agertzen dira ZBO baten babesean zirkulatzen dutenen zirkulazio- eta laguntza-zehaztasunak.

IX. DATUEN BABESA

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoak 5.artikuluan ezarritakoa betetze aldera, eskabidean jasotzen diren datu pertsonalak "zirkulazioaren gainean eragin berezia daukaten jardueren baimenak" izeneko fitxategian sartuko dira. Fitxategi horren titularra Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritza da eta datu horiek jaso eta tratatzearen xede bakarra aurkeztutako baimen-eskabidea izapidetzea eta ebaztea da. Datu horiek legeak aurreikusitako kasuetan baino ez dira komunikatzeko modukoak izango.

Fitxategia Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Datuak Babesteko Erregistroan inskribatuta dago. Fitxategia inskribatu da arau hauen arabera: otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa; eta urriaren 18ko 308/2005 Dekretua, lege hori garatzen duena.

Fitxategi horrek, datuak baimenik ez duten pertsonengandik babesteko eta datuen konfidentzialtasuna eta segurtasuna bermatzeko segurtasun-neurri egokiak ditu. Pertsonak datuetan sartzeko, aldatzeko, ezerezteko eta aurka egiteko dituzten eskubideak erabiltzeko, Trafiko Zuzendaritzara idatzi bat helarazi beharko dute.

X. INDARREAN SARTZEA

Instrukzio hau aplikatuko da sinatu ondorengo egunean eta indargabetzen ditu 6/2013, 5/2015 eta 8/2015 instrukzioak.

Vitoria-Gasteiz,

Trafikoko zuzendaria
Sonia Díaz de Corcuera Ruiz de Oña

I. ERANSKINA: ZBO EMATEKO BETEKIZUNAK

b. Interesduna: ZBOren titularra

Zirkulazio baimen osagarria pertsona fisiko edo juridiko (enpresa) horrentzat eskatzen da eta baimenaren arduraduna izango da.

Pertsona edo enpresa hori eta beste hau pertsona bera izan behar dira:

- ❖ Garraio-enpresako txartelaren titularra, **GABAI** baterako ZBOren eskabidean sartzen diren ibilgailu motordun guztiak bere izenarekin lotuta dituen; edo garraio pribatuak badira, zirkulazio-baimenaren titularra.
 - Atzerritarren kasuan, Erkidegoko garraio-lizentziaren titularra edo Europar Batasuneko kideak ez diren herrialdeetako ibilgailuetarako horren baliokidea den dokumentuaren titularra, dagokionaren arabera.
- ❖ **Obra eta zerbitzuetako IB** baterako eskabidean agertzen den ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren titularra edo, ibilgailu motordunaren jabea modu profesionalean gidaririk gabeko ibilgailuak errentan ematen dituen enpresa bat bada, errentamendu-kontratuan errentari gisa agertzen den pertsona.
 - Azken kasu horretan, eskabidearekin batera errentamendu-kontratua ere aurkeztu behar da, baldin eta ibilgailuen Erregistroan inskribatuta ez badago edo ibilgailuak atzerriko matrikula badauka.

c. Ibilgailuak

Eskabidean sartzen diren ibilgailuak zirkulatzeko gai izan behar dira eta beraz, matrikulatuta egon behar dute, nahiz eta aldi baterako izan. Eskabidean gehienez ere sar daitekeen ibilgailu kopurua hau da:

	Ibilgailu motordunak	Atoiak / erdi-atoiak
Modulurik gabeko GABAI	25era arte ¹	25era arte ²
Moduludun GABAI matrikula 1	25era arte ¹	25era arte ²
Moduludun GABAI hainbat matrikula	25era arte ¹	25 gurpildunera arte ³
Obra edo zerbitzuetako IB	1	

¹ Ardatz-lerro kopuru berekoak.

² Garraiatuko den kargarekin bateragarriak eta ardatz-lerro kopuru berekoak.

³ Garraiatuko den kargarekin bateragarriak, baldin eta fabrikatzaile berekoak badira eta fabrikatzaileak emandako bateragarritasun-ziurtagiria aurkezten bada.

ZBOen eskabideetan ardatz-motak ondoan dauden ardatz-lerroen arteko distantziaren arabera sailkatzen dira; horrela:

- **ardatz sinplea**, ardatz-lerro bakarra eta distantzia 1,80 metrokoa edo handiagoa da ($d \geq 1,80$).

- **Tandem-ardatza**, bi ardatz-lerro "bogie" berari lotuta eta ardatzen arteko distantzia 1,80 m baino txikiagoa da ($d < 1,80$).

- **Tridem ardatza**, hiru ardatz-lerro "bogie" berari lotuta eta haien arteko distantzia 1,80 m baino txikiagoa da ($d < 1,80$).

- **n ardatz**, lau ardatz-lerro edo gehiago "bogie" berari lotuta, ezaugarri berekoak eta distantzia 1,80 m baino txikiagoa da ($d < 1,80$).

Bogie berekoak direla ulertuko da ardatzen arteko distantzia 1,8 metrokoa baino txikiagoa bada eta ardatz horien ezaugarri teknikoak homogeneoak direnean (ardatzeko TOGM, ardatzeko gupil kopuru bera, motrizitatea, etab.) Konbentzioz, bogie bereko ardatz taldeetan ardatzeko kargak berdinak izango dira.

Baimena jasotzeko, ibilgailuek ardatzeko pisuari buruzko betekizun teknikoak bete behar dituzte (TOGM/ardatz) eta EAEko bideetako titularrek ardatz-lerroaren tipologiaren, ardatzeko gupilen edo esekidura-motaren arabera ezarritako mugak gainditzen ez badituzte.

d. Taldeak abian duen hurrenkera

Eskabidean proposatzen den talde motak, abian duen hurrenkera, IEOn ezarritako gehieneko masa eta neurriak gainditzearen arrazoia izan behar da garraiatzen duen karga zatiezina dela edota horrela eraikita dagoela.

Talde baterako baimen-eskabidea egitean, talde horrek abian duen hurrenkera (GABAlen kasuan aurkezten den krokisarekin bat etorri behar dena) definitzeko jarraibideak izango dira eskabidean sartuta dauden ibilgailuek dauzkaten neurri, masa eta motor-ahalmen aurkakoenen arabera.

Horiek horrela, ulertuko da ezaugarri aurkakoenak hauek direla:

- **Luzera:** Baimen-eskabideko ibilgailuekin osatu daitekeen luzerarik **handiena**, karga barne. Karga atzetik ateratzen bada, egoera hori kontuan hartuta, izan dezakeen gehieneko luzera jarri beharko da.
- **Zabalera:** Baimen-eskabideko ibilgailuekin osatu daitekeen zabalerarik **handiena**, garraiatzen den karga kontuan hartuta.
- **Altuera:** Baimen-eskabideko ibilgailuekin eta garraiatzen den kargarekin taldeak izan dezakeen **altuerarik** handiena.
- **ITTOGM:** Baimentzeko dauden ibilgailu motordunek dituzten edukieren artean **txikiena** jarriko da.
- **Ardatzeko karga:** **Kargaren pisua zein ibilgailu astunenetako tarak** kontuan hartuta.

Karga "etxebizitza modulua" edo "feria eta ikuskizunetarako makinaria" bada, ibilgailu zurrin eta atoi batez osatutako errepide-tren batean edo ibilgailu artikulatu batean garraiatuko da, eta bakarrik ZBO generikoa edo berezia eman ahal zaio.

Errepide-trenak, 18,75 m-ko luzera gaindituta, baimena izan ahal du, baldin eta horrela osatuta badago: kargarik gabeko ibilgailu zurrin bat gehi salgaiak garraiatzeko ez den atoiaren eramateko zerbitzu-makina bat,

Hala ere, garraioa arauz ezarritako mugak eta neurriak betetzen dituen beste ibilgailu batekin egin ahal bada, ez da ZBORik emango, salbu eta :

- Neurri bat bakarrik gainditzen bada eta arauzko mugak errespetatzen dituztelako ZBO behar ez duten beste ibilgailu batzuekin garraioa ezin dela egin justifikatzen bada.
- Kargaren neurriak eta zatiezintasuna dela eta, IEOren IX. eranskinean azaltzen diren gehieneko mugak errespetatuz karga hori garraiatu dezakeen ibilgailu motarik ez badago.

e. Karga

Garraiatzen den kargak zatiezintasunaren baldintza bete behar du, IEOren 14. artikuluan eta IX. eranskineko 1. ataleko 1.15 puntuan jasotzen dena. Karga zatiezina edo elementuz osatutako talde zatiezina izan behar da.

d.1. Onartzeko moduko kasuak

Karga zatiezina: errepidez garraiatzeko, zati bitan edo gehiagotan banatu ezin daitekeena beharrezkoak ez diren kostuak edo kalte-arriskuak sortu gabe eta, daukan neurriengatik edo masagatik, ibilgailu motordun, atoi, errepide-tren edo ibilgailu artikulatu batean ezin eraman daitekeena baimendutako gehieneko masa, neurriak eta ardatzeko karga guztiz errespetatuta.

Elementuz osatutako talde zatiezina: Talde hori osatzen duten elementuak izaera berekoak dira, helburu bera dute eta neurri berdinak edo desberdinak izan ditzakete; eta taldeak, abian daukan hurrenkeran, **elementu horietako handienarengatik**, ezarritako **gehieneko neurrietako bat edo bi gainditzen ditu**.

Elementu handienak gainditzen duen/dituen neurri horren edo horien arabera (luzera, altuera edo zabalera) emango da ZBO eta inola ere ezin izango dira gainditu eskatutako talde motarako (abian duen hurrenkeran) ezarritako gehieneko masak.

Adibidez: metalezko profilak, tutuak, obra-etxolak, uztaiak.

Salbuespenez, garraiatzeko zatitzen diren salgaiak direnean, **karga zatigarria onartuko da**, baldin eta taldeko masa guztia 100 tonatik gorakoa ez bada.

Onartzen diren salbuespenak dira elementu bereziz osatutako taldea eta elementu desmuntagarriak.

- **Elementu bereziz osatutako taldea:** Talde horretako elementuak izaera berekoak dira, helburu bera daukate eta neurri berdinak edo desberdinak izan ditzakete; eta taldeak bere elementuetako handienak gainditzen dituen neurriez gain, beste neurriren bat edota IEOk garraiatuko duen talde horretarako (abian duen hurrenkeran) ezartzen duen gehieneko masa gainditzen du.

Horrelakoetan justifikatu behar da garraiatzeko seguruagoa dela elementu talde hori estibatzea, arauz ezarritakoa betetzea baino.

Adibidez: Hormigoizko zutabe aurrefabrikatuak, pala eolikoak.

Elementu bereziz osatutako taldearen salbuespenezko kasu bat egur landugabeak dira. Masa horrek kargan gehienez 44 tona izan ditzake eta ibilbide zehatza, baso ustiapen zehatz batetik zerrategi zehatz bateraino. Baimen horien indarraldia bi urtekoa izango da eta titular bakoitzarentzat behin baino ez da emango.

- **Elementu desmuntagarriak:** hainbat pieza estuki lotuta dituzten makinez edo beste objektu mota batzuez osatutakoa eta horiek garraiatzeko banaketa hau egiten da: batetik, erdiko egitura zatiezin bat, masa edota neurriak errespetatuta eraman ezin dena, eta bestetik, gainerako piezak.

Kargaren zati diren osagaiak batera garraiatu ahal dira, baldin eta makina edo karga-gai berekoak badira.

Adibidez: itsasontziak; uzta-makina eta haren orrazia; zubi-garabia eta haren osagarriak.

Garabi jasotzailearen material osagarriak "elementu desmuntagarrien" kasu berezi bat dela ulertuko da eta zirkulatzeko baldintza hauek bete behar ditu:

1. Material osagarria identifikatzea: Garabi bakoitzaren material osagarria identifikatzeko moduan egongo da eta horrekin batera doan dokumentu batean zerrendatuta agertuko da. Dokumentu hori baimena eman duen lurralde bulegoak sinatu eta zigilatu behar du.
2. Garraio osagarriaren ibilbidea: Garraio osagarri horrek kasuan kasuko garabiari lagundu behar dio edo bestela, gidariak enpresak emandako dokumentu bat eraman behar du, bertan garabiaren ibilbidea zehaztuta: Nondik mugitu den eta nora doan, eta ibilbide hori garabiaren material osagarria garraiatzen duen taldearen ibilbidearekin bat etorriko da, datak zehaztuta.
3. Garraiatutako elementuak/pisua. Bidaia bakoitzean eramaten diren elementuek ezin izango dute talderako baimendutako guztizko pisua gainditu, ezta ardatzeko pisua ere.
4. Material osagarriaren jabea: Garraiatzen den material osagarria garabi bakar batena izango da, baimenaren titularraren jabetzakoa eta zerbitzu bakoitzean ezin izango da beste garabi baten materiala eraman, ezta beste karga mota batekin nahastu ere. Horrelakoetan, salgai zatiezina izateari utziko dio eta baimenak ez du baliorik izango.
5. Enpresa berekoak izatea: Garraio hori zatiezin moduan egiten duten ibilgailuak garabiaren enpresa berekoak izan behar dira, jabetza- edo errentamendu-erregimenean edo agintaritza eskumendunak baimendutako beste edozein forma juridikotan; edo sozietateen bidez elkarri lotutako enpresetakoak izan behar dira, hau da, elkarrekin talde enpresarial bat osatzen dutenak. Garraioa garabiaren jabea den enpresak ez beste batek eginez gero, garraioaren dokumentazioan notario-deklarazioa agertu behar da azaltzeko garraiatzen duen enpresa garabiaren jabetza daukan taldeko enpresa bat dela.

Egiten den garraio bakoitzean 4. baldintza nahitaez bete behar bada ere, ZBO bakar baten babesean, garabi jasotzaile ugariren (kopuru mugagabea) material osagarria garraiatu daiteke.

d.2. Kargaren deskribapena

Eskabide-inprimakian, kargaren deskribapena egitean, izendapen generikoak alde batera utzi behar dira, esaterako "pieza metalikoa" edo haren antzekoak. Ahalik eta zehaztasun handiena eman behar da.

Hortaz, eskabidean karga deskribatzean edo izendatzean, hauek agertuko dira: etxebizitza-moduluak; garabiaren material osagarria; ibilgailu matxuratuak edo istripua izan dutenak; fresatzeko makina; hormigoizko zutabeak; brida edo pala eolikoa; prentsa; satinatzailea.

Aurreko zerrenda ez da zehatza edo baztertzailea, baina karga zehatz deskribatzeko adibideak ematen ditu.

Hala ere, kargaren deskribapena edo izendapena modu orokorrean eginez gero, ZBO eskabidea izapidetzen den bitartean zuzentzeko aukera dago.

f. Ibilbidea

Eskatuko den ZBO motak eta bideko titularrek emandako txosten orokorren nondik norakoek baldintzatuko dute ibilbidearen identifikazioa edo ibilbidea definitzeko modua.

a) Ibilbide zehatzik gabe

✓ **ZBO orokorrak eta bereziak: “Euskadi-Euskadi”**

GABAI eta obra eta zerbitzuetako IBei ematen zaizkie “atalase komun” izenez ezagutzen ditugun parametroetara arte, EAeko bideetako titular guztien txostenetan berdin agertzen diren parametroak direlako.

Luzera (L)	≤ 35 m
Zabalera (a)	≤ 4,5 m
Altuera (h)	≤ 4,5 m
Masa (M)	≤ 75 T
MARDATZ	GABAI: Taulan ¹ begiratu
	IB ≤ 7 ardatz: 12,6 t/ardatz

¹ GABAI taula. Gehieneko karga ardatzeko:

TIPO DE EJE		CARGA MÁXIMA PERMITIDA (t)		
EJE SIMPLE				
ESRS		10,0		
ESRG		11,5		
L2RS		15,5		
L2RG		16,5		
EJE TÁNDEM		SEPARACIÓN ENTRE EJES (m)		
		0,5 - 1,35	>1,35 - 1,50	>1,50 - 1,80
G2EESRS		9,0	10,0	10,5
G2EESRG		9,5	11,0	11,0
G2EL2RS		13,5	15,5	16,0
G2EL2RG		14,0	16,0	16,5
EJE TRÍDEM		SEPARACIÓN ENTRE EJES (m)		
		0,5 - 1,35	>1,35 - 1,50	>1,50 - 1,80
G3EESRS		7,5	9,5	10,0
G3EESRG		8,5	10,5	11,0
G3EL2RS		11,5	14,5	15,5
G3EL2RG		12,5	15,5	16,0
N EJES		SEPARACIÓN ENTRE EJES (m)		
		0,5 - 1,35	>1,35 - 1,50	>1,50 - 1,80
GNEESRS		7,5	9,5	10,0
GNEESRG		8,5	10,5	11,0
GNEL2RS		11,5	14,5	15,5
GNEL2RG		12,5	15,5	16,0

ES = Eje simple RS = Rueda simple G2E = Grupo de 2 ejes
 L2 = Línea de dos ejes RO = Rueda gemela G3E = Grupo de 3 ejes
 GNE = Grupo de N ejes

Ibilbiderik gabeko ZBOk emateko ez dago banakako txostena eskatu beharrik, txosten orokorren babespean daudelako eta beraz, ZBO horiek, indarrean dauden bitartean, EAeko errepide-sare osotik zirkulatzeko baimena ematen dute, salbu eta pasabide-murrizketak edo pasabide-erreserbak dituzten errepide-puntu, -zati edo errepide osoetatik. Horietatik zirkulatzeko galarazten duten pasabide-murrizketak eta horietatik zirkulatu ahal izateko hainbat baldintza ezartzen dituzten pasabide-erreserbak jartzen dira, errepide-puntu, -zati edo errepide oso horien azpiegiturak baldintzatzen duelako baimendutako ibilgailuen neurriak eta masak horietatik igarotzea. Baimena horiekin lotuta dago eta beraz, baimena inplizituki baldintzatzen dute.

Bideko titularrek pasabide-murrizketak zein pasabide-erreserbak txosten orokorretan jakinarazten dituzte eta Trafiko Zuzendaritzaren webgunean daude kontsultagai: trafikoa.eus.

OHARRA: Eskabideko taldeak abian duen hurrenkeran "atalase komunaren" barruko neurriak eta masak izan arren, interesdunak ibilbide zehatzeko ZBO bat eskatu ahal izango du. Horrelakoetan ZBOren indarraldia urte betekoa izango da.

✓ ZBO orokorrak eta bereziak, "lurraldeko" ibilbidearekin

Obra eta zerbitzuetako IBei ematen zaizkie eta Arabako lurraldetik edo Bizkaikotik edo Gipuzkoatik zirkulatzeko baimena ematen dute.

Indarrean dauden bitartean, Arabako edo Bizkaiko edo Gipuzkoako edo bi lurraldetako errepide-sare osotik zirkulatzeko baimena ematen dute, salbu eta pasabide-murrizketak edo pasabide-erreserbak dituzten errepide-puntu, -zati edo errepide osoetatik. Horietatik zirkulatzeko galarazten duten pasabide-murrizketak eta horietatik zirkulatu ahal izateko hainbat baldintza ezartzen dituzten pasabide-erreserbak jartzen dira, errepide-puntu, -zati edo errepide oso horien azpiegiturak baimendutako ibilgailuen neurriak eta masak horietatik igarotzea baldintzatzen duelako. Baimena horiekin lotuta dago eta beraz, baimena inplizituki baldintzatzen dute.

Bideko titularrak pasabide-murrizketak zein pasabide-erreserbak txosten orokorretan jakinarazten dituzte eta Trafiko Zuzendaritzaren webgunean daude kontsultagai: trafikoa.eus.

“Lurralde bakoitzaren” parametroak taula honetan agertzen dira:

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Luzera (L)	≤ 35 m	≤ 40	≤ 40
Zabalera (a)	≤ 4,5	≤ 5	≤ 5
Altuera (h)	≤ 4,5	≤ 4,5	≤ 5
Masa (M)	≤ 75	≤ 100	≤ 75
MARDATZ	¹	≤ 12,6	≤ 13 ²

¹Ik 7 ardatz baino gehiago ez baditu edo masako 75 tona gainditzen ez baditu, ez da mugarik egongo.

² Gipuzkoan Zubietako pasabide-murrizketak (debekuak) bete behar dira.

b) Ibilbide zehatza daukatena

ZBO berezien eskabideetan (atalase komuna edo, hala badagokio, lurraldeko parametroak gainditzen dituzten neurriak dituztenetarako) eta salbuespenezkoen eskabideetan ere ibilbidea zehaztu behar da. Garraio pribatu partikularra denean ere ibilbidea zehaztu behar da, taldeak abian dituen neurriak edozein direla ere.

Beraz, interesdunek ibilbidea identifikatzeko datu hauek eman behar dituzte:

- Jatorria,
- Helmuga,
- Ibilbideko errepideak identifikatzeko, errepideen izen ofiziala, lurralde historikoa eta kilometro-puntuak (jakinez gero) edo igarotzen den leku nagusiak (herriak, lotuneak, industrialdeak, etab, eta
- Kilometro kopurua.

Proposatzen den ibilbidea etengabea izan behar da eta ahalik eta zuzenen eta koherenteen eta, izapidetzen dabilen bitartean, ibilbidea igaroko den bideko titularrei banakako txosten loteslea eskatuko zaie, baldin eta ibilgailuaren edo ibilgailu-taldearen neurriek eta masek txosten orokorretako parametroak gainditzen badituzte.

Hala badagokio, ematen den ZBOK eskatutako ibilbidetik zirkulatzeko baimena emango du, baina ahaztu gabe inplizituki ibilbide horretan eragiten duten pasabide-murrizketak (aginduak) eta pasabide-erreserbak (neurriak) kontuan hartu eta betetzeko betebeharra daukatela. Horiek Trafiko Zuzendaritzako webgunean daude kontsultagai: www.trafikoa.eus .

Hala ere, gerta daiteke baimendutako ibilbidea eskatutako ibilbidearekin bat ez etortzea, bideko titularrek eman beharreko txostenen menpe dagoelako. Horrelakorik gertatuz gero, aldez aurretik interesdunari jakinarazi behar zaio eta interesdunak baietsi beharko du.

II. ERANSKINA: ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Kasu guztietarako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- ❖ Eskabidea behar bezala beteta.

Eskabide-inprimakia Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa eskuratu ahal da, eta sarbidea lotura honetan dago: www.trafikoa.eus edo www.euskadi.eus. Behar bezala bete ondoren, kanal elektronikoa edo presentziala erabiliz aurkeztu behar da.

- ❖ Identitatea: IFZ, AIZ edo IFKren kopia.

Ez da aurkeztu behar, baldin eta Lurralde Bulegoetan izapidetutako beste espediente batean lehendik aurkeztu bada. Hala bada, eskabidean horretarako dagoen atalean markatuko da.

Eskabidea telematikoa bada, identifikazioa onartutako ziurtagiri digital baten bidez egingo da.

Eskabidea aurrez aurre aurkezten bada, identifikatzeko dokumentazioa, NAN, ez da aurkeztu behar, baldin eta Administrazio honi kontsultatzeko aukera ematen bazaio.

- ❖ Ordezkaritza: Ordezkaritza Administrazioaren aurrean egiaztatu behar da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 5 artikuluko 4. atalean ezartzen duenaren arabera.

Ordezkaritza egiaztatutzat jotzen da, baldin eta Ordezkarien Erregistro Elektronikoa alta emanda badago. Hori dela eta, pertsona fisiko edo juridikoek Administrazioarekin gaikuntza-hitzarmen bat sinatu ahal dute ibilgailuetarako zirkulazio baimen osagarrien eskabideak aurkeztu eta horiek elektronikoki izapidetu ahal izateko (Administrazio Elektronikoa otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 12. art.).

Bestela, ordezkaritza egiaztatzeko, ordezkaritza emateko inprimakia aurkeztu behar da.

- ❖ IATaren fitxaren kopia, eskabidean sartuta dauden ibilgailuen ezaugarri teknikoak jasotzen dituena.

Ez da aurkeztu behar, baldin eta Lurralde Bulegoetan izapidetutako beste espediente batean lehendik aurkeztu bada. Hala bada, eskabidean horretarako dagoen atalean markatuko da.

➤ **Atzerriko fitxa teknikoak** badira eta GB aplikazioak eskatzen dituen datu guztiak jasotzen ez badituzte, fitxa tekniko horien osagarri gisa, fabrikatzailearen ibilgailuaren ezaugarri buruzko egiaztagiria onartuko da. Egiaztagiri hori aurkeztu ondoren, oraindik ere datu batzuk egiaztatu gabe geratuz gero, ibilgailuaren titularraren erantzukizunpeko adierazpena onartuko da, datuen egiazkotasunaren gainekoa.

- ❖ IB: Ibilgailuen Erregistroan inskribatuta ez badago, zirkulazio-baimenaren kopia.

- ❖ GABAI: Garraio-enpresako baimenaren kopia, Erkidegoko garraio-lizentzia edo horren baliokidea den dokumentua Europar Batasuneko kideak ez diren herrialdeetako ibilgailuen kasuan.

Interesduna (eskatzailea) REATen izena emanda badago, bakarrik garraio-enpresako baimena aurkeztu beharko du, baldin eta REATen ofizioz hori kontsultatzerik ez badago. Hala bada, jakinaraziko zaio .

Eskatzen denaren arabera, dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:

- ❖ GABAI: Ibilgailuaren krokis eta daraman kargaren distribuzioaren krokis fidagarria, hala badagokio, hauek adierazi behar dira: guztizko masa, ardatzeko masa, ardatzen arteko distantzia eta gehieneko neurriak karga barne hartuta.
 - Krokisa DIN A-4 tamainako orri batean aurkeztuko da eta hauek irudikatuko dira: ibilgailuaren krokisa, kargaren ingerada eta kokapena adierazita alboko altxaeran, oinplanoan eta atzeko altxaeran, ibilgailuaren neurri nagusiak behar bezala mugatuta eta ardatz-arteak tartearak. Orobat irudikatu behar dira karga atzetik ateratzen den kasuak, galiboa egokiro zehaztu ahal izateko, ezinbestekoa baita eskatzen den zirkulaziorako. Alboko altxaeran, ardatz bakoitzean ardatzak kargaturik duen masa adieraziko da, gezi bertikal baten gainean. Horrez gainera, ardatzen tipologiari buruzko datuak zehaztuko dira.
- ❖ Matrikula bat baino gehiagoko atoi edo erdiatoi modularren kasuan: dokumentazio teknikoa edo fabrikatzaileen bateragarritasun-ziurtagiria.
- ❖ Bideragarritasunari eta bide-segurtasunari buruzko azterlana, teknikari eskudun batek egindakoa eta elkargo profesionalak bisatuta, baldin eta GABAI, abian duen hurrenkeran, egoera hauetako batean baldin badago:
 - 1. Garraiatu behar duen karga **elementu bereziz osatutako taldea** bada.

- **Edukia:**

Karga izaera eta helburu bereko hainbat elementuz osatuta badago eta, talde zatiezinetarako ezarritako irizpideak gainditu arren, estibatze-arrazoiengatik aldi berean garraiatzea seguruagoa denean, elkargokidea den teknikari eskudun batek bisatutako azterlan bat aurkeztu behar du, hauek jasotzen dituen:

- Elementu guztiak aldi berean garraiatzeko beharraren justifikazioa.
- Karga guztia osatzen duten elementuen kopuru zehatza.
- Taldeak abian duen hurrenkera irudikatzen duen krokisa, hauek adierazita: taldearen guztizko masa eta neurriak eta masak ardatzeko.
- Kargaren elementu bakoitzaren kokapena eta taldearen grabitate-zentroaren kokapena.
- Karga estibatzearen baldintzak, euskarriak eta bermeak adierazita.

- 2. Garraiatu behar duen karga **elementu desmontagarri osatuta** badago.

- **Edukia:**

Karga makina batez edo beste objektu-mota batzuez eta horien piezaz osatuta badago, batera garraiatu ahal dira, baldin eta egitura edo pieza nagusia ezin bada masa edota neurriak errespetatuta eraman, eta karga osatzen duten elementu guztiak makina edo karga-gai berekoak badira.

Interesdunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, hauek jasotzen dituen:

- Erdiko egitura bat eta haren pieza edo piezak direla eta horiek makina bera osatzeko muntatuko direla egiaztatzen duen agiri bat.
 - Garraiatuko den elementu bakoitzaren neurriak eta masak.
 - Taldeak abian duen hurrenkera irudikatzen duen krokisa, hauek adierazita: taldearen guztizko masa eta neurriak eta masak ardatzeko.
 - Kargaren elementu bakoitzaren kokapena eta taldearen grabitate-zentroaren kokapena.
 - Karga estibatzearen baldintzak, euskarriak eta bermeak adierazita.
- **3. Kargaren hegala karga** bermatuta doan ibilgailuaren edo ibilgailuen atzetik **3 metro baino gehiago ateratzen bada.**

- **Edukia:**

Bideragarritasunari eta bide-segurtasuneko neurriei buruzko azterlanak hauek jaso behar ditu:

- Karga eskatzen den atzeko hegalararekin garraiatu beharraren justifikazioa.
 - Taldea abian duen hurrenkera irudikatzen duen krokisa eta horretan hauek adierazita: taldearen masa osoa eta neurri guztiak, ardatzeko masak, ardatz motak eta ardatzen arteko distantziak.
 - Kargaren kokapena, grabitate-zentroaren kokapena, estibatzearen baldintzak eta euskarrien eta bermeen deskribapena.
 - Ibilbidearen kokapenaren krokisa mapan.
 - Ibilbidearen deskribapena, bideen izen ofizialak adierazita. Bideak izenik ez badu, jatorria eta helmuga adieraziko dira, argi eta garbi zein den jakiteko moduan izendatuta.
 - Gatazka-gune nagusiak identifikatuta, eta gutxienez hauek adierazita: bideen arteko lotuneak, finka mugakideetarako sarbideak, ibilbidearen jatorria eta helmuga, bihurgune itxiak, estuguneak, galiboak eta ibilbidean egon daitezkeen gainerako sarbide-murrizketak.
 - Gatazka-guneen argazkiak, hauexek adierazita: gune horiek non dauden eta egin beharreko maniobrak.
 - Baimenaren titularrak bideko erabiltzaile guztiek seguru eta arin zirkula dezaten bermatzeko egingo dituen ekintzen proposamena.
- **4. Taldeak abian daukan gehieneko masa 300 tonatik gorakoa bada.**

- **Edukia:**

Horrelakoetan, bideragarritasunari eta bide-segurtasuneko neurriei buruko azterlanak hauek jaso behar ditu:

- Errepidez garraiatu beharraren justifikazioa.

- Azterlanaren muina den taldearen krokisa eta taldeak abian duen hurrenkeraren deskribapena. Talde osoari buruz datu hauek adierazi behar dira: masa, neurriak eta ardatz-lerroen kopurua; beti leku berean doan taldeko elementu bakoitzari buruz, hauek: ibilgailu-mota, ardatza, ardatz-lerroa, esekidura-sistema, ardatzen arteko distantziak eta kargako hegala.
- Kargaren kokapena, grabitate-zentroaren kokapena eta estibatzearen baldintzak.
- Ibilbidearen kokapenaren krokisa mapan, eta ibilbidearen idatzizko deskribapena, ibilbidea osatzen duten bideen izen ofizialak adierazita. Bideak izenik ez badu, erabiliko den bide-zatiaren hasiera-puntua eta amaiera-puntua adieraziko dira, argi eta garbi geratzeko zein bide-zati den.
- Ibilbidea osatzen duten bideen ezaugarriak: mota, errei kopurua, plataformaren eta erreien zabalera, bazterbideak, bermak, erdibitzaileak, trafikoaren dentsitatea eta zirkulazioaren arintasunean eta segurtasunean eragina izan dezakeen beste edozein parametro.
- Ibilbide grafikoa mapa batean, hauek adierazita:
 - Gatazka-gune nagusiak identifikatuta, eta gutxienez hauek adierazita: bideen arteko lotuneak, finka mugakideetarako sarbideak, bihurgune itxiak, estuguneak, galiboak, kontrako noranzkoan zirkulatzeko bide-zatiak eta ibilbidean egon daitezkeen gainerako pasabide-murrizketak.
 - Gatazka-guneen argazkiak, bertan zirkulazioaren segurtasuna bermatzeko egin behar diren maniobrak adierazita.
- Salgaiaren deskribapena, salgaiaren jabea eta igorlea adierazita.
- Bidaia-plana, hauek guztiak kontuan hartuta: zirkulazio-abiadura, gelditzeen programazioa, ordutegia eta garraioaren geralekuak.
- Bide-segurtasunerako konponbideen proposamena, baliabide materialak eta pertsonalak zehaztuta.

Edozein kasutan, **atzerriko hizkuntza batean idatzitako dokumentuekin** batera horien itzulpena ere aurkeztu behar da, eta itzulpena hauetako batek egina izan behar du: zinpeko itzultzaile edo interpretari batek, Espainiak atzerrian daukan kontsulatuak edo dokumentua eman duen herriak Espainian daukan kontsulatuak.

➤ **5. Autoeskoltarekin zirkulatzeko eskabidea**

Dokumentu hori ZBOren eskabidearekin batera aurkeztuko da, baldin eta eskatutako ibilbidea autoeskolta erregimenean egitea alde zuzenetik baimenduta ez badago eta baimen hori lortu nahi bada.

▪ **Edukia:**

“Bideragarritasunari eta bide-segurtasunari buruzko azterlanak” eduki hauek izan behar ditu:

- Garraioa auroeskolta-baldintzetan egiteko beharra.

- Taldea, abian duen hurrenkeran, irudikatzen duen krokisa eta horretan hauek adierazita: taldearen masa osoa eta neurri guztiak, ardatzeko masak, ardatz motak eta ardatzen arteko distantziak.
- Kargaren kokapena, grabitate-zentroaren kokapena, estibatzearen baldintzak eta euskarrien eta bermeen deskribapena.
- Ibilbidearen kokapenaren krokisa mapan.
- Ibilbidearen deskribapena, bideen izen ofizialak adierazita. Bideak izenik ez badu, jatorria eta helmuga adieraziko dira, argi eta garbi zein den jakiteko moduan izendatuta.
- Gatazka-gune nagusiak identifikatuta, eta gutxienez hauek adierazita: bideen arteko lotuneak, finka mugakideetarako sarbideak, bihurgune itxiak, estuguneak, galiboak, kontrako noranzkoan zirkulatzeko bide-zatiak eta ibilbidean egon daitezkeen gainerako pasabide-murrizketak.
- Bideen ezaugarrien deskribapena, hauek adierazita: tipologia, errei kopurua, neurriak, bazterbideak, berma (bi eremu bereizten dituen langa goratua, erlaitza edo esparru laua), erdibitzailea, bidearen erabilera, trafikoaren dentsitatea, etab.
- Gatazka-guneen argazkiak, bertan zirkulazioaren segurtasuna bermatzeko egin behar diren maniobrak adierazita.
- Bide-segurtasunaren arloko konponbideen proposamena eta horretan, taldea zirkulatzeko doan bitartean bide-segurtasuna bermatzen duten maniobrak eta baliabide materialak zein giza baliabideak zehaztuta.

III. ERANSKI NA: ESKABIDEAK IZAPIDETZEA

1.- ZBO-REN ESKABIDEAK JASO ETA ALTA EMATEA

ZBOen eskabideak (berria, iraungitzeaz dagoen bat berritza edo indarrean dagoen bat aldatzea iraungi arteko aldirako) kanal elektronikoa edo presentzialaren bidez aurkeztuko dira, salbu eta eskatzaileak Administrazioarekin elektronikoki erlazionatzeko betebeharrak badauka.

Nolanahi ere, interesdunek eskabidea egiteko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa dagoen inprimakia erabili behar dute, bestela ez dira onartuko eta.

Aurkeztu diren eskabideei alta emateko eta horiek izapidetzen hasteko gida honi jarraituko zaio: "Garraio berezien espedienteak izapidetzea".

Espedientea Tramitagunen izapidetzen hasiko da, gero TA01 aplikazioan jarraitzeko eta sortzen den dokumentazioa Tramitagunera eramango da espediente elektronikoa osatzen joateko eta, dagokionean, Egoitza elektronikora bidaliko da jakinarazpena egiteko.

2.- TASA ORDAINTZEA

Eskabidea behar bezala beteta dagoela egiaztatu ondoren, eskatzaileari dagokion tasaren ordainketa-gutuna helaraziko zaio.

Baldin eta eskatzaileak jakinarazpenak jasotzeko bide elektronikoa bat adierazi ez badu, ordainketa-gutuna lehiatilan eskuratu ahal izango du edo posta ziurtatuaren bitartez helaraziko zaio.

Ordainketa-gutuna eskabide-mota kontuan hartuta sortuko da: berri bat egiteko/berritzeko edo indarrean dagoen bat aldatzeko.

3.- HUTSAK ZUZENTZEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak (aurrerantzean 39/2015 Legea), urriaren 1ekoak, 68.1. artikuluan xedatzen duenaren arabera, baimen-eskabideak beharrezko baldintzak betetzen ez baditu edo daturik falta bada, Lurralde Bulego izapidetzaileak interesdunari eskatuko dio hamar egun balioduneko epean falta diren datuak aurkezteko edo osatzeko edo behar diren dokumentuak eransteko. Horrez gain, jakinaraziko zaio hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, 39/2015 Legearen 21. artikuluan jasotako moduan ebazpena eman ondoren.

Zuzenketa jaso ostean, izapidetzen jarraituko da. Bestela, baimena ukatuko da.

Eskatzaileari behin baino gehiagotan bidali ahal zaio hutsak zuzentzeko eskaera, baina ez aldi berean, bata bestaren ostean baizik.

4.- BIDEETAKO TITULARREI TXOSTENAK ESKATZEA

ZBOren eskabideak "atalase komuna" izenekoak edo, hala badagokio, "lurraldeko parametroak" gainditzen ez baditu, ez da txostena eskatzeko izapidea egingo.

ZBOren eskabideak "atalase komuna" izenekoak edo, hala badagokio, "lurraldeko parametroak" gainditzen baditu, ordea, bideetako titularrei banan-banako txostena eskatu behar zaie, baldin eta txosten orokor batean taldeak abian eta eskatutako hurrenkeran bide horietatik zirkulatzeko izan ditzakeen gehieneko neurri eta masak jaso ez badituzte.

Dena den, ematen den baimena, inplizituki, bideko titularrek txosten orokorrean jakinarazitako pasabide-murrizketen eta pasabide-erreserben menpe egongo da. Horiek Trafiko Zuzendaritzaren webgunean daude kontsultagai: www.trafikoa.eus.

Txostena jaso eta horretan edozein ohar (fidantza, bideragarritasunari buruzko azterlana, ibilbide-aldaketa, pasabide-murrizketa edo beste edozein kontu) agertuz gero, eskatzaileari jakinaraziko zaio dagokiona zuzen dezan.

Eskatutako txosten guztiak jaso ostean, izapidea amaitutzat joko da.

5.- ESKOLTA-TASAREN ORDAINKETA-GUTUNA

Ibilbide zehatz bat eskatzen denean eta espedientea izapidetzen amaitu ondoren, zirkulazio-baldintzetan GABAI edo IBetarako eskolta poliziala sartu behar dela iritziz gero, eskolta horri dagokion ordainketa-gutuna sortuko da, gutxienez, baimenduko diren bidaia guztien arteko batengatik.

Horrelakoetan, ZBO jaulki aurretik, eskolta-tasa ordaindu behar da.

6.- ESKABIDEA ALDATZEA

Interesdunak eskabidearen terminoak edo datuak aldatu ahal izango ditu eskabidea aurkeztzen duenetik ZBO jaulkitzen den arte, baldin eta txostena eskatu behar ez bada, eskatutakoa bideetako titularrek emandako txosten orokorren arabera onartuta baitago.

Txostena eskatzeko izapidea egin behar bada, interesdunak eskabidean aldaketak egin ahal izango ditu nahitaezko txostenak ematen diren arte. "Txostena eman dela" ulertuko da txostena espedientearen agertzen denean; hau da, bideko titularrak Bulego izapidetzaileari jakinarazi dionean eta espedientearekin batera dagoenean.

7.- ESPEDIENTEA EBAZTEA

Espedientea izapidetzen amaituta, LB izapidetzaileak arrazoietan oinarritutako ebazpena emango du: aurkeztutako eskaera baimentzeko, ukatzeko edo eskatzaileak uko egin diola edo atzera egin duela deklaratzeko.

Espedientea, gehienez ere, HIRU HILABETEko epean ebatzi eta jakinarazi behar da, eskabideari izapidetzeko eskumena daukan Lurralde Bulegoan sarrera ematen zaion egunetik kontatzen hasita, 39/2015 Legearen 21.3.b artikulua ezartzen duenaren arabera. Epea eten egingo da lege-testu horren 22. artikuluan legez aurreikusitako arrazoietakoren batengatik.

Ebazteko epea igarota (hiru hilabete) ebazpena eman ez bada, administrazioaren isiltasun positiboa aplikatu (39/2015 Legearen 24.1 art.) eta eskabidea baietsitzat joko da.

Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka, hilabeteko epean, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Trafikoko zuzendariari (39/2015 Legearen 121 eta 122 art.).

a) Ukapena

Noiz:

- Baimena emateko ezarrita dauden betekizunak betetzen ez direnean,
- Bideko titularren txostenak aurkakoak direnean,

- Hutsak zuzentzeko errekerimenduei behar bezala erantzun ez zaienean,
- Gerora sortutako arrazoiengatik espedientearekin jarraitzea ezinezkoa denean.

b) Atzera egitea edo uko egitea

Eskabidean atzera egin duela edo uko egin diola deklaratu da, interesdunak hala adierazten duenean, beti ere egintza hori jasota geratzen bada; edo interesdunak bere eskubideei uko egiten diela deklaratu ahal da (39/2015 Legearen 94. art.)

ZBOren titularrak bere eskubideei uko egiten badie, emandako ZBOren indarraldia amaitu dela deklaratu da.

c) Baimena

Legezko betekizunak eta Instrukzio honetan ezarritakoak betetzen badira, ZBO emanez amaituko da prozedura. ZBO horrek, bideko titularrek txostenetan behar bezala arrazoiutako zirkulazio-murrizketak eta pasabide-erreserbak kontuan hartuta ere, GABAI edo IB motari dagozkion eta aplikagarri zaizkion zirkulazio-baldintzak ezarriko ditu; izan ere, baimenean ezartzen diren zirkulazio-baldintzak ZEOren arauetara gailentzen zaizkie.

Zirkulazio-, abisu- eta laguntza-arauez gain, baimenaren balioa baldintzatzen duten ohar orokorrak ere jasoko dira.

8.- JAKINARAZPENA

ZBO Egoitza elektronikoaren bidez jakinaraziko da, interesdunek Administrazioarekin elektronikoki erlazioatzeko betebeharra baldin badute edo haien borondatez komunikatzeko modu hori aukeratu badute. Bestela, eskatzailearen eskura jarriko da, jaso duela egiaztatzeko aukera ematen duen moduren batean (39/2015 Legearen 41.art. eta horren ondokoak), eta GABAIen kasuan baimendutako ibilgailu motordun adina kopia emango zaizkio.

IV. ERANSKINA: ZBO ALDATZEA ETA BERRITZEA (ESKABIDE LABURTUA)

A) ALDATZEA

Eskabide-inprimakia eskuratu eta aurkezteko jarraibideak Instrukzio honetako IV.atalean daude.

Indarrean dagoen ZBO aldatu ahal da kasu hauetan:

- a) ZBOren TITULARRA aldatzen bada kausa hauengatik:
 - o GABAI baterako emandako jatorrizko ZBOren sartuta dauden ibilgailu motordun guztiekin lotutako garraio-enpresako baimenaren titulartasunean aldaketaren bat dagoelako. REATen egiaztatuko da aldaketa hori gertatu dela eta noiztik aurrera daukan indarra.
 - o IB baterako emandako ZBOren agertzen den ibilgailu motordunaren erregistro-titulartasuna aldatu delako. Erregistro-aldaketa hori erregelamenduz izapidetuta egon behar da ibilgailuen erregistroan eta ZBOren titular berria izango denaren izenean agertu behar dira ibilgailuak.
- b) ZBOren sartuta dauden IBILGAILUAK ORDEZKATZEA EDO, gehienez ere baimendu daitezkeen ibilgailuen muga errespetatuta, IBILGAILUAK GEHITZEA; salbu eta dagoeneko baimenduta dauden ibilgailuen kopurua muga horretara heldu bada. Kasu batean zein bestean, ZBOren sartzeko eskatzen diren ibilgailuek dagoeneko baimenduta daudenen ezaugarri baliokideak izan behar dituzte (ardatz kopurua eta ardatzen ezaugarriak, TOGM, AETOGM, tara)

Indarrean dagoen ZBOren aldaketak interesdunak eskatu baditu eta aldaketa horiek baimenaren funtsezko ezaugarriak aldarazten badituzte. Horrelakoetan beste ZBO bat izapidetu beharko da. Funtsezko ezaugarritzat hauek ditugu:

- a. Talde mota.
- b. Kargaren ezaugarriak, deskribapenaren edo identifikazioaren aldetik
- c. Masak, zirkulazio-abiadura edota taldeak abian dauzkan neurriak, hasieran baimendutakoak baino handiagoak edo txikiagoak direnean.
- d. Baimenaren indarraldia luzatzea, hasieran emandakoak zeukana baino handiagoa bada.
- e. Ibilbidea.
- f. Pasabide-murrizketak, -erreserbak edo zirkulazio-baldintzak.

ZBO indarrean dagoen bitartean, gerora sortutako arrazoiengatik, baimendutako ibilbidea osorik edo zati batean aldatu beharko balitz, Trafiko Zuzendaritzak hartu beharreko neurriak hartuko ditu eta interesdunei jakinaraziko dizkie.

Eskatzen den aldaketaren arabera, zein dokumentazio aurkeztu behar den, instrukzio honen II. eranskinean jasota dago.

Emanda dagoen baimen batean egindako aldaketek ez dute baimendutako taldearen baldintza teknikoetan inolako aldaketarik eragin behar.

Izapidetzean kontua hartu behar da sartu nahi den ibilgailua baimenaren barruan dauden gainerakoekin zein garraiatzen den kargarekin bateragarria izan behar dela.

Horrelakoetan, espedientea ebatziko da eta jatorrizkoaren aginduak eta baldintzak mantenduko dira eta, hala badagokio, eguneratuko dira.

Emanda dagoen ZBO n sartu behar den/diren ibilgailua/ak bateragarriak ez badira, baimena aldatzeko eskaera ukatuko da.

Aldatutako ZBOren zenbakia ez da jatorrizkoaren zenbaki berdina izango, baina jatorrizkoari erreferentzia egingo dio eta aldatutakoa indarrean egongo da jatorrizkoaren indarraldiaren amaiera-datara arte, hau da, aldatutakoa indarrean egongo da jaulkitzen denetik aldatu den ZBOren indarraldia amaitzen den arte.

ZBO aldatzeko eskabidea jatorrizko baimena eman zuen Lurralde Bulegoak izapidetuko du.

B) BERRITZEA (ESKABIDE LABURTUA)

Eskabide-inprimakia eskuratu eta aurkezteko jarraibideak Instrukzio honetako IV.atalean daude.

“Eskabide laburtua” eskabide berri bat da, baina inprimaki laburtu bat dauka. Inprimaki hori erabili ahal da eskabidearen datuak aurrez emandako beste eskabide baten datuak bezalakoak direnean. Hala ere, hori erabiltzeko epea izango da jatorrizkoaren balio-epea amaitu baino hiru hilabete lehenagotik indarraldia amaitu osteko urtebetara arte.

Noiztik	Noiz arte
Indarraldiaren amaiera - 3 hilabete	Indarraldiaren amaiera + urte 1

Bakarrik ordezkari gisa jardun duen entitatearen edo pertsonaren datua alda daiteke. Ondorioz, eskabide-inprimakiarekin batera ordezkariari dagokion dokumentazioa baino ez da aurkeztu behar, instrukzio honen II. eranskinean ezarritakoa aplikagarri baitzaio.

Berritze-inprimaki (eskabide laburtua) hori GABAI edo obra eta zerbitzuetako IBei emandako ZBO kategoria guztietarako erabili ahal da eta ematen den unean indarrean dauden irizpideak eta arauak aplikatuko zaizkio.

V. ERANSKI NA: ZBO-REKIN ZIRKULATZEA ETA BALDINTZAK

ZBOn ezartzen diren zirkulazio-baldintzek inguruabar hauek aintzat hartuko dituzte: bide-segurtasunerako arrisku onartezinak, kargaren estibatze egokia, azpiegiturarako kalteak, eta gainerako erabiltzaileen mugikortasunerako kalte onartezinak.

Bide-erabiltzaileek ez dute zirkulazioa modu txarrean oztopatu behar, eta ez diete pertsoneri arrisku, kalte edo beharrik gabeko eragozpenik sortuko, ez eta ondasunei kalterik eragingo ere. Baimenaren bidez ezarritako zirkulazio-baldintzek ez dituzte alde batera uzten betebeharririk. Bereziki, norik bere buruari edo beste inori inolako kalterik ez sortzeko behar den arretaz eta kontuaz gidatu behar du, kontuz ibiliz norbera, ibilgailuko bidaiariak eta gainontzeko bide-erabiltzaileak arriskuan ez jartzeko.

Dena den, ematen den baimena, inplizituki, bideko titularrek txosten orokorrean jakinarazitako pasabide-murrizketen eta pasabide-erreserben menpe egongo da. Horiek Trafiko Zuzendaritzaren webgunean daude kontsultagai: www.trafiko.eus.

Emandako ZBOK taldeari baimena ematen dio abian duen hurrenkeran zirkulatzeko, horretan ezarritako parametro eta baldintzak betetzen baditu eta gainera hauek kontuan hartuta:

- ZBO kategoriaren arabera baimendutako neurriak eta masak

Bidaien kopuru mugaturik ez daukan baimen zehatz baten babesean zirkulatzeko hutsik zirkulatzeko aukera ematen du, horrela ere arauzko mugak gaindituko balitu. Beraz, interesdunak eskabidean taldeak, abian duen hurrenkeran, hutsik zirkulatzeko dauzkan neurriak jarri behar ditu. Emandako ZBOK zehaztuko du, hala badagokio, hutsik zirkulatzeko zein laguntza-baldintza dagozkion.

Kargatuta badao, ordea, emandako ZBOren kategoriarako parametroen barruan zirkulatu beharko du, baina benetan baimendutakoen muga errespetatuta.

Hortaz, taldeak abian dituen neurriak edo masak, karga barne, ez badaude emandako ZBOren kategoriaren barruan, talde horiek ez dira emandako ZBOren babespean egongo.

- Zirkulazio-ordutegia

ZBO generiko edo espezifikoko bat daukaten GABAIen zirkulazio-ordutegia egunekoa zein gauekoa izan daiteke.

Laguntza polizialarekin edo autoeskolta erregimenean gauez zirkulatu da, baldin eta ZBOK beste ordutegi bat ezartzen ez badu.

Halaber, gauez zirkulatu da baldin eta taldeak, abian duen hurrenkeran, 40 metrotik gorako luzera ($L > 40$ m) edota 4,5 metrotik gorako zabalera ($z > 4,5$ m) badauka eta ibilbide osoa edo haren zati bat Instrukzio honen arabera autobideak edo autobideak ez diren errepideetatik egiten bada.

Hala ere, ZBOK beste zirkulazio-ordutegi bat ezarri ahal izango du edo ordu-tarte zehatz batzuetara muga dezake, zirkulazioan gehiegizko eragina daukaten egoeren kasuan. Egoera horiek daudela ulertuko da hurrengo egoeretako bat edo bi aldi berean gertatzen direnean. Dena den beheko zerrenda ez da zerrenda itxia.

- seinale bertikalak edo baliza-seinaleak kentzeko beharra;
- ibilgailua igarotzeko trafikoa mozteko beharra;
- ibilbidearen zatiren batean ohikoaren aurkako noranzkoan zirkulatzeko beharra;
- baimendutako ibilbidean trafiko-intentsitate handia;
- zailtasun orografikoak.

IBk egunez zein gauez zirkulatu ahal izango dute, baldin eta gauez zirkulatzeko gaituta dauden ibilgailuetarako IEOn 16.artikuluak ezartzen dituen argien eta seinale optikoen dispositiboak badituzte.

Instrukzio honen ondorioetarako, eguneko ordutegia 06:00etatik 22:00etara artekoa izango da eta gauekoa 22:00etatik 06:00etara artekoa.

- Aldi berean zirkulatzea.

ZBO berarekin, talde batek baino gehiagok, abian daukaten hurrenkeran, aldi berean zirkulatu ahal dute. ZBOn dauden ibilgailuez osatutako taldeek zirkulatu ahal izango dute aldi berean.

- ZBO desberdinak erabiltzea

Bidaia batean egingo den ibilbidea ZBO desberdinen babesean egon daiteke, baina beti bete behar dira bide-zati bakoitzean erabiliko den baimenaren baldintza guztiak (baimendutako parametroak, karga, zirkulazio-baldintzak, etab.)

- Konboian zirkulatzea

GABAIek 2ko konboietan zirkulatu ahal izango dute, baldin eta bi taldeek beren ZBOetan ibilbide bera baimenduta badaukate eta ibilbide osoan zehar edo horren zati berean eskoltarekin zirkulatu behar badute. Poliziako patruilaz gain, konboia laguntzen ibilgailu pilotu hauek joan behar dute: Instrukzio honetan jasotako parametroen arabera, laguntzen joan behar duten ibilgailu pilotuak baino bat gehiago. (Ikusi VI. eranskineko D atala)

GABAIek 3ko konboian zirkulatu ahal izango dute, baldin eta 2ko konboirako jarritako baldintza betetzen badira (ibilbide bera eta eskoltarekin zirkulatzeko); beti ere, Trafiko Zuzendaritzak ibilbide hori zirkulazio mota horretarako alde aurretik baimendu badu. Baimen hori emango da ibilbidearen azterlana egin ondoren eta, hala badagokio, ibilbidea hiru taldeko konboian zirkulatzeko egokia dela bermatzen duen proba pilotua ere egin ondoren. Gainera, baimendutako ibilbideek alde aurretik www.trafikoa.eus webgunean argitaratuta egon behar dute.

Poliziako patruilaz gain, 3ko konboia laguntzen ibilgailu pilotu hauek joan behar dute: Instrukzio honetan jasotako parametroen arabera, laguntzen joan behar duten ibilgailu pilotuak baino bat gehiago. (Ikusi VI. eranskineko D atala)

3 GABAIetako konboi batek autoeskolta erregimenean zirkulatu ahal izango du, baldin eta Trafiko Zuzendaritzak alde aurretik egoera horietarako ibilbidea baimendu eta argitaratu badu.

- Geolokalizazioa

Autoeskolta erregimenean zirkulatu duten taldeek, abian duten hurrenkeran, bidaia hastean beren geolokalizazio datuak bidali behar dituzte telematikoki, Trafiko Zuzendaritzak zehaztutako aplikazio informatikoa erabiliz. Konboian zirkulatuz gero, konboia osatzen duen lehen taldeak bidali beharko ditu datuak telematikoki.

Hori beste betebeharrak bat da, proposatutako bidaiaren planari buruzko Ertzaintzaren bisatua lortzeko betebeharrak aparte.

VI. ERANSKINA: LAGUNTZA: Motak, parametroak, abisuak edo komunikazioak.

ZBOK zirkulazio-baldintzen artean adierazi dezake ibilgailu pilotuarekin eta, gainera, polizia-eskoltarekin lagunduta edo, hala badagokio, autoeskolta erregimenean joateko beharra. Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzak, bere eskumenen barruan, GABAI eta IBei ZBOK ematen dizkienean, laguntza erabakitzeko zein irizpide erabiltzen diren hurrengo tauletan daude.

A)- Ibilgailu pilotuaren laguntza

GABAIek eta IBek ibilgailu pilotuaren bidez errepidean daudela adierazi behar dute, baldin eta eranskin honetako D) atalean agertzen direnetatik edozein parametro betetzen badute. Ibilgailu pilotuaren laguntzarekin zirkulatzean, hurrengo baldintzak bete behar dira:

- **Ibilgailu pilotuaren dotazioa, hortik igarotzea erregulatzeko**

Ibilgailu pilotuko langileek paleta batean R-400 (derrigorrezko noranzkoa) eta R-2 (stop) seinale bertikalak txertatuta eraman behar dituzte, ibilgailuen zirkulazioa erregulatzeko, agintaritzako agenterik ez dagoenean edo haiei laguntzeko. Ikusgarritasun maila handiko arropa islatzaile homologatuak ere eraman behar dituzte.

Igarotzea arautzeko maniobrak, agintaritzako agenterik ez badago, gainerako erabiltzaileei ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko moduan eta ahalik eta debora laburrenean egingo dira, Zirkulazio Erregelamendu Orokorren 143. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- **Ibilgailu pilotuarekin egiten diren bidaien jakinarazpena:**

ZBOren titularrak ibilgailu pilotuaren laguntzarekin egin behar duen bidaia bakoitza jakinarazi behar du, bidaiaren hasierako ordua, data eta lekua adierazita, baita baimen-zenbakia ere. Jakinarazpen hori behar besteko aurrerapenarekin egingo da eta horretarako Trafikoko www.trafikoa.eus webgunean dagoen inprimakia erabili behar da: "Ibilgailu pilotuarekin egiten diren bidaien jakinarazpena".

B)- Polizia-eskoltaren laguntza

GABAIk eta IBek, ibilgailu pilotuaren bidez errepidean daudela adierazteaz gain, Ertzaintzak lagunduta zirkulatu behar dute, baldin eta eranskin honetako D) atalean agertzen diren parametroetakoren bat betetzen badute.

Ezarritako parametroak, taldeak abian dituen ezaugarriak eta baimendutako ibilbidea osaten duten bideak kontuan hartuta, eskolta-zerbitzua ibilbide osorako edo ibilbide-zatietarako ezar daiteke.

Dena den, bide-segurtasun eta mugikortasun arrazoiengatik, edo garraiatu behar duen kargagatik, ZBOK neurri horiek baino txikiagoak dituzten GABAI edo IBei poliziak lagunduta zirkulatzeko baldintza ezarri ahal die.

- **Laguntza bakoitzerako patruilen kopurua**

Laguntza patruila bakar batekin egingo da, salbu eta ZBOK edozein ibilbidetatik konboian zirkulatzen duten IB edo GABAI patruila kopuru gehiago ezartzen badie. Hori gertatuz gero, laguntzari “eskolta mistoa” deituko zaio eta hurrengo puntuan ezartzen diren ezaugarriak izango ditu.

Halaber, modu indibidualean zirkulatzen duten GABAI edo IBek eskolta mistoarekin zirkulatu ahal izango dute, baldin eta haien neurriengatik eta baimendutako ibilbidearen ezaugarriengatik zirkulazioaren kontrako noranzkoa bete behar badute eta zirkulazio-etenak egin behar badira.

Edonola ere, patruila bakarreko laguntza-erregimen horretatik kanpo geldituko dira, baldin eta garraioak egiteko planifikazio eta logistika neurri bereziak behar badira.

○ **Eskolta mistoarekin zirkulatzeko baldintzak**

Konboi bat edo, hala badagokio, talde indibidual bat laguntzeko eskolta mistoa, aurreko puntuko baldintzak betetzen badira, horrela egingo da:

1. Konboia edo, hala badagokio, talde indibiduala laguntzen duten ibilgailu pilotuetako batek jardunean dabilen patruilari lagunduko dio, patruila horren jarraibideei kasu eginez eta haren agindupean.
2. Patruila eta ibilgailu pilotua etengabe egongo dira harremanetan, gidariek eta agenteek erabakitzen duten bidearen bitartez.
3. Ibilgailu pilotuak konboia non kokatu behar diren jardunean dabilen patruilak erabakiko du, beti ere ibilgailu taldeen eta ibilgailu pilotuen arteko gutxienezko 50 metroko distantzia errespetatuta.
4. Poliziak lagunduta edo eskolta erregimenean zirkulatu behar bada, ZBOren baldintzetan, Ertzaintzako patruilari laguntzen dion ibilgailu pilotuaren betebeharrak jasoko dira.

○ **Tasa Ertzaintzako agenteen laguntzagatik**

Ertzaintzako agenteek lagunduta joateak eskoltagatik dagokion tasa sortuko du eta Lurralde Bulego izapidetzaileak kalkulatu du baimendutako bidaia-kopuruaren arabera (gutxienez baimenduko diren bidaietako batengatik). Tasa baimena eman aurretik edo ZBO eman ostean bidaia bat egin aurretik sortuko da. Azken kasu horretan, likidazioa eskatu den bidaia-kopuruaren arabera egingo da.

Formula honen bidez kalkulatu behar da:

$$Tasa = \text{“eskoltarekin egiteko diren km kopurua”} \times \text{“0,31 euro”}^1 \times \text{“faktore biderkatzailea”} \times \text{“eskatutako bidaien kopurua”}^3$$

¹ Tasen zenbatekoa EAeko Aurrekontuen Legeak ezartzen duen koefizientearen bidez eguneratzen da.

² Faktore biderkatzaileak eskolta-patruilen kopurua eta lurralde batetik baino gehiagotik igarotzen den kontuan hartzen ditu. Hortaz, garraioa lurralde batetik baino gehiagotik igarotzen bada eta 2 patruilarekin bada, koefiziente biderkatzailea hau izango litzateke: $2(\text{eskolta}) \times 2(\text{lurralde}) = 4$. Lurralde bakar batetik igaroko balitz, hau izango litzateke: $2(\text{eskolta}) \times 1(\text{lurralde}) = 2$

³ Kopurua ZBOren titularrak eskatzen duena da, harik eta baimendutako bidaia guztiak egin arte.

○ **Eskolta poliziala daramaten bidaien planaren jakinarazpena:**

Eskolta polizialak lagunduta joateko ZBO eman ostean, baimenaren titularrak Ertzaintzari zerbitzu hori eskatu beharko dio, gutxienez bidaia egin baino 72 ordu lehenago, eta bidaia hasten deneko lurraldea, lekua, ordua eta eguna adierazi beharko ditu, baita bidaia egingo duen ibilgailuaren matrikula edo taldeko ibilgailuenak eta baimenaren zenbakia ere.

Jakinarazpen hori, Ertzaintzak balidatzen badu, bidaiaren benetako plana izango da. Bestela, eta trafikoaren fluxuarekin edo bide-segurtasunarekin lotutako arazoengatik, Trafikoko Ertzaintzak titularrari dagozkion argibideak helaraziko dizkio, argibide horietarako egokia den proposamena egin dezan.

Bidaiaren plana Ertzaintzari jakinaraztean, ZBOren titularrak adierazi beharko du bidaiak 2 edo 3ko konboian egin nahi dituela, eta 3ko konboian bada, egingo den ibilbidea 3ko konboian zirkulatzeko baimendutako ibilbide bat izan behar da.

Jakinarazpena egiteko Trafiko Zuzendaritzaren www.trafikoa.eus webgunean horretarako dagoen eredia erabili behar da: "Bidaiaren plana Ertzaintzari jakinaraztea".

C)- Autoeskolta

Kasu zehatz batzuetan, taldeak, abian duen hurrenkeran, autoeskolta erregimenean zirkulatu ahal izango du, eskolta polizialaren ordezkotako laguntza gisa, baldin eta Trafiko Zuzendaritzak horrelako laguntzak egiteko alde zuzenetik onartu eta www.trafikoa.eus webgunean argitaratu duen ibilbide batetik zirkulatuko bada.

Autoeskolta erregimenean zirkulatzeko ibilbide bat onartzeko eskaera interesdunek, Ertzaintzako Trafikoko unitateek eta Trafiko Zuzendaritzak berak egin dezakete. Trafiko Zuzendaritzak, eskatutako ibilbidearen bideragarritasuna aztertuta, baimendu eta argitaratu egingo du. Hasiera batean, ibilbide osoan zehar eskolta behar duten ibilbideak baino ez dira baimenduko.

Eskaera interesdunek egiten badute, ZBOren eskabidearekin batera "bideragarritasunari eta bide-segurtasunari buruzko azterlana" aurkeztu beharko du eta horretan instrukzio honen II. eranskinean jasotako baldintzak eta edukiak agertu beharko dira.

Autoeskolta erregimenean zirkulatzeko baimendu eta hori argitaratu ondoren, ibilbide horretan ZBOren titular guztiei aplikatuko zaie laguntza mota hori. Hala ere, Ertzaintzaren Trafiko unitateek bidaia egiten den bitartean zaintza- eta kontrol-lanak egiteko aukera daukate eta egokitzat jotzen dutenean laguntza emateko aukera ere bai.

o Autoeskoltarekin zirkulatzeko baldintzak:

- 1) Ertzaintzari bidaiaren plana jakinarazi.
- 2) Poliziaren laguntzaren ordezkotako instrukzio honen arabera dagozkion ibilgailu pilotuak baino bat gehiago joango da.
- 3) Eskoltako langileak interesdunaren kontura joango dira.
- 4) Zirkulazio-ordutegia, polizia-laguntzarekin egiten deneko ordutegi bera da.
- 5) Taldeak autoeskolta erregimenean zirkulatzeko arau hauek bete behar ditu:

- Zirkulazio arrunta:

Taldeak, abian duen hurrenkeran, aurretik eta atzetik ibilgailu pilotu bana eramango ditu. Eskolta poliziala ordezkatzan duten ibilgailu pilotua, autobide edo autobietatik zirkulatzean, amaieran joango da. Errepide arruntetatik zirkulatzean aurrean joango da.

Ibilgailu edo ibilgailu-talde bakoitzak, haren aurretik doan ibilgailuarekin edo ibilgailu-taldearekin gutxienez, 50 metroko tartea gordeko du. Kokapenari eta distantziei buruzko aurreikuspen horiek aldatu ahal izango dira biraketa-maniobrak egiteko.

- Maniobrak maila bereko lotuneetan eta biribilguneetan:

Taldeak, abian duen hurrenkeran, eta haren kargaren hegala behar duten lekuan, biraketa-maniobra egiteko behar den denboran zehar, ez da beste erabiltzailerik egongo, eta ibilgailu pilotuetako langileen ardura izango da hori horrela gertatzea.

Ibilgailu pilotuak aurreratu edo atzeratu egin daitezke, behar denaren arabera, maniobra hasten denetik amaitzen den arte kontrako noranzkoan doazen errei guztietan zein eraginda dauden ondoko erreietan zirkulazioa mozteko.

Eraginpeko eremu guztia libre dagoela bermatzeko moztu beharreko guneetan moztuko da zirkulazioa eta taldea, abian duen hurrenkeran, ez da biraketa-maniobra egiten hasiko, harik eta ibilgailu pilotuko langileek maniobrarekin beteko diren erreietan zirkulazioa moztuta dagoela egiaztatzen dioten arte.

- Ekipamendua eta jantziak:

Ibilgailu pilotuetako langile laguntzaileak egin beharreko zirkulazio mozketak egiteko gaituta daude (Zirkulazio Erregelamendu Orokorren 143. art.). Ibilgailu pilotuek behar beste langile laguntzaile izango dituzte maniobrak segurtasunez egin ahal izateko eta pasabideak eta horietarako sarbideak seinaleztatu ahal izateko, zirkulazioa arrunta dagoenean zein maniobrak egitean.

Langile horiek guztiek ikusgarritasun handiko jantzi islatzaile homologatuak jantziko dituzte eta zirkulazioa erregulatzeko R-2 (stop) eta R-400 (derrigorrezko noranzkoa) seinaleak erabiliko dituzte.

Langile laguntzaileen, ibilgailu pilotuetan doazenen eta taldearen (abian duen hurrenkeran) arteko ahozko komunikazioa etengabea izango da, pertsona horiek ibilgailuen barruan zein kanpoan egon. Horretarako, komunikazio hori baimenduko duten dispositibo egokiak izango dituzte eta behar beste dispositibo.

Trafikoa zaintzeko eta kontrolatzeko eskumena daukan ertzainen bat lekuan balego, langile laguntzaileek eta ibilgailuetan zein taldean doazenean agenteek ezartzen dutena beteko dute.

Taldea abian duen hurrenkeran eta ibilgailu pilotuak seinaleztatuta joango dira, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrean eta Zirkulazio Erregelamendu Orokorrean ezartzen denaren arabera. Horrez gain, talde autoeskoltatuak V-

23 bereizgarriak eramango ditu, bere ingerada mugatzeko; IEOK XI. eranskinean ezartzen duenaren arabera.

- Ertzaintzaren laguntza:

Hala ere, eskolta bere osotasunean ordezkari daitezke edo ezar daitezke laguntza-modalitate honetarako, baimendutako ibilbidean, kilometro-zati zehatzetan Ertzaintzak laguntza emango duela edo lagunduko duela.

- **Ertzaintzari autoeskoltadun bidaiaren plana jakinarazi.**

ZBOK baimendutako ibilbidea autoeskolta erregimenean zirkulatzeko baimenduta dagoen ibilbide batekin bat badator, ZBOren titularrak, gutxienez bidaia egin baino 72 ordu lehenago, Ertzaintzari bidaiaren plana jakinarazi behar dio. Bidaia hasten deneko lurraldea, lekua, ordua eta eguna adierazi beharko ditu, baita bidaia egingo duen ibilgailuaren matrikula edo taldeko ibilgailuenak eta baimenaren zenbakia ere bai.

Ertzaintzak, jakinarazitako ZBOren ibilbidea autoeskolta erregimenean zirkulatzeko baimenduta dagoen ibilbide batekin bat datorrela egiaztatu ostean, balidatzen badu, jakinarazpen hori bidaiaren plana izango da, eta Ertzaintzak jakinaraziko du non egingo dituen laguntza-lanak, egokitzen joz gero. Halaber, eta trafikoaren fluxuarekin edo bide-segurtasunarekin lotutako arrazoiengatik, Trafikoko Ertzaintzak titularrari dagozkion argibideak helaraziko dizkio, argibide horietarako egokia den proposamena egin dezan.

“Bidaiaren plana Ertzaintzari jakinaraztean” ZBOren titularrak adierazi beharko du bidaia 2ko konboietan egingo dituen. Halaber, bidaia 3ko konboietan autoeskoltarekin egiteko asmoa badauka, jakinarazi ahal izango du. Horrela bada, Ertzaintzak ibilbidea autoeskoltarekin eta 3ko konboietan egiteko baimenduta dagoela egiaztatu beharko du.

Jakinarazpena egiteko Trafiko Zuzendaritzaren www.trafikoa.eus webgunean horretarako dagoen ereduaren erabili behar da: “Bidaiaren plana Ertzaintzari jakinaraztea”.

D)- Parámetros de acompañamiento

Jarraian datozen parametroak kontuan hartuta, kasu bakoitzari dagokion laguntza aplikatuko zaio. Baimena daukan talde bat, abian duen hurrenkeran, taulako barruti batean baino gehiagotan sartzen bada, laguntza gehien ezartzen duena aplikatuko da.

PARAMETROAK			BIDE MOTA ¹	IBILGAILU PILOTUA		ESKOLTA o AUTOESKOLTA ²
Luzera	Zabalera	Abiadura		Kop.	Kokapena	
		< 40 km/h	Autobidea / autobia	1	atzean	
			Gainerako bideak	2	aurrean / atzean	
20,55 < L ≤ 40			Autobidea / autobia	1	atzean	
			Gainerako bideak	1	delante	
	3 < a ≤ 4,5		Autobidea / autobia	1	atzean	
			Gainerako bideak	1	delante	
40 < L ≤ 55			Autobidea / autobia	1	atzean	
			Gainerako bideak	2	aurrean / atzean	
	4,5 < a ≤ 5		Autobidea / autobia	1	atzean	
			Gainerako bideak	1	TLUK zehaztez du	ESKOLTA
			Gainerako bideak	2	delante / detrás	AUTOESKOLTA
a > 5			Autobidea / autobia	1	TLUK zehaztez du	ESKOLTA
			Gainerako bideak	1	TLUK zehaztez du	ESKOLTA
			Autobidea / autobia	2	atzean	AUTOESKOLTA
			Gainerako bideak	2	aurrean / atzean	AUTOESKOLTA
55 < L ≤ 60			Autobidea / autobia	1	atzean	
			Gainerako bideak	2	TLUK zehaztez du	ESKOLTA
			Gainerako bideak	3	2 aurrean / 1 atzean	AUTOESKOLTA
L > 60 (edozein zabalera)			Autobidea / autobia	2	TLUK zehaztez du	ESKOLTA
			Gainerako bideak	2	TLUK zehaztez du	ESKOLTA
			Autobidea / autobia	3	1 aurrean / 2 atzean	AUTOESKOLTA
			Gainerako bideak	3	2 aurrean / 1 atzean	AUTOESKOLTA

¹ Baldin eta ibilbidea autoeskoltan zirkulatzeko onartuta badago.

² E atalean agertzen da zein bide hartzen den autobidetzat edo autobiatzat laguntza-mota edo laguntzaren ezaugarriak ezartzeko orduan.

- Poliziak konboia laguntzea

Eskolta poliziala eraman behar denean eta konboia 2 taldez (abian duten hurrenkeran) osatuta dagoenean, 3 ibilgailu pilotuk lagunduko dute konboia.

Kasu horretan, ibilbidea autoeskolta erregimenean zirkulatzeko onartuta badago, polizia-ibilgailuaren ordezkari beste ibilgailu pilotu bat gehiago joango da (3IP + 1IP gehiago).

Eskolta poliziala eraman behar denean eta konboia 3 taldez (abian duten hurrenkeran) osatuta dagoenean, 4 ibilgailu pilotuk lagunduko dute konboia.

Kasu horretan, ibilbidea autoeskolta erregimenean zirkulatzeko onartuta badago, polizia-ibilgailuaren ordezkari beste ibilgailu pilotu bat gehiago joango da (4IP + 1IP gehiago).

E)- Laguntza ezartzeko errepede-motak

Ibilgailu-pilotuaren edota eskolta poliziaren laguntza ezartzeko, autobide edo autobiatzat hartuko dira bide hauek:

Lurraldea	Nomenklatura	Mota	Hasierako KP.	Amaierako KP.
A R A B A	A-1	autobia	321,70	329,45
	A-1	autobia	336,15	391,69
	N-102	autobia	342,79	347,81
	N-240	autobia	4,57	15,02
	N-622	autobia	3,97	23,32
	N-624	autobia	9,00	11,00
	A-625	autobia	372,42	370,10
	AP-1	autobidea	Forondako biribilgunearen eta Etxabarri Ibiñako ordainlekuaren artean	
	AP-1	autobidea	Etxabarri Ibiñako ordainlekuaren eta Gipuzkoako mugaren artean.	
	AP-1	autobidea	77,3	83,3
AP-68	autobidea	22,3	77,7	
B I Z K A I A	AP-8	autobidea	74,905	110,890
	AP-8 (VSM)	autobidea	115,085	129,504
	A-8	autobidea	110,890	139,219
	AP-68	autobidea	0	22,350
	N-633 Aireporturako sarb.	autobia	9,310	13,950
	N-637 Txorierriko saihesb.	autobia	8,000	28,180
	N-644 Bilboko portua	autobia	129,504	132,220
	BI-631	autobia	0	1,415
			3,245	5,273
11,820			19,990	

	BI-636 Kadaguako kor.	autobia	4,170	22,984
	BI-637 Kukularra/Sopela	autobia	7,910	18,510
G I P U Z K O A	AP-1	autobidea	114,246	146,150
	AP-1 (AP-8rekin lotura)	autobidea	146,150	215,630
	AP-8	autobidea	0	74,850
	A-15	autobidea	139,76	156,56
	A-15	autobia	156,56	158,93
	A-15	autobidea	158,93	169,32
	N-I	autobia	405,45	454,47
	GI-11	autobia	0	2,523
	GI-20	autobia	0	15,572
	GI-41	autobia	0	1,40
	A-636	autobia	0	22,765